



Sarebide

**Interreg
POCTEFA**



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE

AFoMEF

**ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA
MARTIN UGALDE KULTUR PARKEAN ETORKIZUNEKO
IKUS-ENTZUNEZKO PLATOA EGOKITZEKO OBRAK
KONTRATATZEKO
POCTEFA-AFOMEF PROGRAMAKO SAREBIDE EFA156/04
PROIEKTUAREN ESPARRUAN**

0. APENDIZEA

1. KONTRATUAREN XEDEA.....	3
2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA.....	3
3. ESLEIPEN-PROZEDURA.....	4
4. KONTRATU-DOKUMENTAZIOA.....	4
5. GAUZATZE-EPEA.....	5
6. KONTRATUAREN PREZIOA.....	5
7. ORDAINKETA.....	6
8. PUBLIZITATEA.....	6
9. KONTRATATZEKO GAITASUNA.....	7
10. ESKAINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.....	7
11. ESLEIPEN IRIZPIDEAK.....	8
A) Proposamenaren memoria teknikoa.....	8
C) Eskaintza ekonomikoa.....	10
D) Gauzatze-epea.....	10
E) Euskera eta berdintasuna.....	10
12. BALORAZIO BATZORDEA.....	11
13. PROPOSAMENEN IREKIERA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA.....	11
14. KONTRATUAREN ESLEIPENA.....	12
15. KONTRATUAREN EXEKUZIOA.....	12
16. KONTRATUAREN SUNTSIARAZTEA.....	13
17. PENALIZAZIOAK.....	13
18. ERANTZUKIZUNA.....	14
19. ASEGURUAK.....	14
20. AZPIKONTRATAZIOA.....	14
21. KONTRATUAREN ALDAKETAK.....	14
22. ARAUBIDE JURIDIKOA.....	15
23. JURISDIKZIOA.....	15
I. Eranskina - Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia.....	16
II Eranskina - Negozio bolumenari buruzko deklarazioa.....	17
III. Eranskina - Azken 5 urtetan egindako lanen deklarazioa.....	18
IV. Eranskina - Modelo de oferta económica.....	19

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea da Martin Ugalde Kultur Parkearen instalazioetan etorkizuneko ikus-entzunezko ekoizpen-plato baterako espazio bat egokitzeko obrak kontratatzeke prozedura arautzea. Jarduketa **EUSKAL EDITOREA S.L.U.**k eta **DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.**k sustatzen dute, “**SAREBIDE**” proiektuaren barruan (aurrerantzean, “Proiektua”), **EFA 156/04** identifikazio-zenbakiarekin. Proiektua **INTERREG POCTEFA 2021-2027 Lurralde Lankidetzarako Programaren Mendebaldeko Eremu Funtzionaleko (AFOMEF)** deialdiaren bidez finantzatzen da, eta **Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF)** kofinantzatzen du.

SAREBIDE EFA 156/04 proiektuak AFOMEF estrategiaren 3. erronkari erantzuten dio: “Hizkuntza-oztopoa gainditzea”. Proiektuaren helburu orokorra da “euskarazko komunikabideen eraldaketa digitala sustatzea, baliabide eta soluzio teknologiko komunak txertatuz, baita Adimen Artifiziala ere, sareko edukietarako sarbidea ahalbidetzeko eta edukien hedapenerako kanal eta formatuak zabaltzeko, publiko berrietara iristeko”. Proiektuaren helburua da “Euskarazko Komunikabideen Mugaz Gaindiko Lankidetzak Teknologikorako Sare” bat ezartzea.

Jarduketak gaur egun dauden bi espazio batu eta egokitzea aurreikusten du, ikus-entzunezko erabilera profesionaletarako egokia izango den ingurune batean bihurtzeko, hala nola bideo-ekoizpena, podcastak, grabazioak eta multimedia-formatuak egiteko, Baldintza Teknikoen Agirian zehaztutako baldintzen arabera.

Kontratuak obra-kontratu izaera izango du, eta barne hartuko ditu deskribatutako esku-hartzea behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren lan guztiak, hornidura osagarriak eta baliabideak.

Jarduketa hau etorkizuneko ikus-entzunezko plato partekatuen garapen-proiektu orokorraren lehen fasea da, **EUSKAL EDITOREA S.L.U.**ren (Berria) eta **DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.**ren (Hamaika) artean garatuko dena.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Honako hauek dira prozedura honen erakunde sustatzaile eta kontratatzaileak:

- **EUSKAL EDITOREA S.L.U.**
- **DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.**

Bi erakundeek batera parte hartzen dute **SAREBIDE EFA 156/04** proiektuaren

garapenean, eta modu koordinatuan jarduten dute Martin Ugalde Kultur Parkean kokatuko den etorkizuneko ikus-entzunezko espazio partekatua egokitzeko kontratazio honetan.

Kontratazio-prozeduraren kudeaketa eta jarraipena bi erakundeek batera egingo dute, eta koordinatuta jardungo dute kontratua baloratzeko, esleitzeko eta gauzatzeko prozesu osoan zehar.

Esleipendunak bi erakunde kontratatzaileekin koordinatu beharko du lanen exekuzioan zehar.

Kontratuari dagokion fakturazioa %50ean egingo da EUSKAL EDITOREA S.L.U.ren eta DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.ren artean, kontratua formalizatzeko unean emango diren jarraibideen arabera.

3. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da, publizitate-, lehia-, gardentasun-, tratu-berdintasun- eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuz.

Eskaintzak ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dira, horretarako adieraziko den helbide elektronikora bidalita.

Eskaintzak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira.

Esleipena kalitate-prezio erlaziorik onena aurkezten duen eskaintzari egingo zaio, plegu honetan ezarritako irizpideen arabera.

4. KONTRATU-DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentu hauek izango dute kontratu-izaera:

- Administrazio Klausulen Agiri hau.
- Baldintza Teknikoen Agiria eta hari erantsitako dokumentazio grafikoa.
- Espedienteari erantsitako dokumentazioa.
- Enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintza.
- Alderdien artean formalizatzen den kontratua, hala badagokio.

Dokumentu horiek guztiak esleipendunak sinatu beharko ditu, kontratua formalizatzeko unean, haiekin ados dagoela adierazteko.

5. GAUZATZE-EPEA

Obrak gauzatzeko gehieneko epea 4 hilabetekoa izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Enpresa esleipendunak aurreikusitako lanen plangintza aurkeztu beharko du eskaintzarekin batera.

Ezarritako epeak arrazoirik gabe ez betetzeak kontratua eteteko arrazoia izan ahal izango da.

6. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **BERROGEITA ZORTZI MILA EUROKOA (48.000 €) da, BEZa kanpo.**

BEZari dagokion zenbatekoa **HAMAR MILA ETA LAUROGEI EUROKOA (10.080 €) da.**

Kontratuaren guztizko zenbatekoa, BEZa barne, **BERROGEITA HAMAR MILA ETA LAUROGEI EUROKOA (58.080 €) da.**

Lizitatuak kontratua gauzatzeko eskaintzen duten prezio osoa jaso beharko dute beren eskaintza ekonomikoan, BEZa kanpo, eta zenbateko horrek ezin izango du plegu honetan ezarritako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditu.

Eskaintako prezioak barne hartu beharko ditu prozedura honetan deskribatutako lanak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren kostu zuzen eta zeharkako guztiak; besteak beste, materialak, eskulana, baliabide osagarriak, garraioa, hondakinen kudeaketa, lizentziak, aseguruak, joan-etorriak, zergak (BEZa izan ezik) eta jarduketa osorik gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein gastu.

Aurkeztutako eskaintzak barne hartzen dituela ulertuko da prozedura honetan deskribatutako jarduketa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren lan eta baliabide guztiak.

Kontratuari dagokion fakturazioa %50ean egingo da EUSKAL EDITOREA S.L.U.ren eta DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.ren artean, kontratua formalizatzeko unean emango diren jarraibideen arabera.

7. ORDAINKETA

Kontratuaren prezioa honela ordainduko da:

- Lehen ordainketa bat egingo da, esleitutako zenbatekoaren %50ari dagokiona, kontratua formalizatu eta lanak hasi ondoren.
- Gainerako %50a lanak amaitu eta balioztatu ondoren ordainduko da.

Enpresa esleipendunak lanen amaiera jakinarazi beharko die erakunde kontratatzaileei, eta haiek kontratu-dokumentazioaren arabera lanen exekuzio egokia egiaztatuko dute. Akatsak, amaitu gabeko lanak edo ez-betetzeak antzemanaz gero, horiek zuzentzea eskatu ahal izango da lanen azken balioztatzea eta kontratuaren azken ordainketa egin aurretik.

Fakturazioa %50ean egingo da EUSKAL EDITOREA S.L.U.ren eta DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.ren artean, kontratua formalizatzeko unean emango diren jarraibideen arabera.

Erakunde kontratatzaileek fakturatutako lanen exekuzio egokia egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duten dokumentazioa eskatu ahal izango dute.

8. PUBLIZITATEA

Kontratazio-prozedura honi buruzko informazioa erakunde kontratatzaileen webguneetan, ohiko komunikazio-kanaleetan eta egokitzen jotzen diren bestelako bitartekoetan zabaldu ahal izango da.

Era berean, erakunde kontratatzaileek gonbidapen zuzena bidali ahal izango diete, beren profil teknikoagatik eta esperientziagatik, prozeduran parte hartzeko interesa izan dezaketen enpresei.

Honako hauek argitaratuko dira erakunde kontratatzaileen kontratatzaile-profilean:

- Lizitazioaren deialdi-iragarkia.
- Kontratuaren formalizazio-iragarkia.

Kontratatzaile-profilerako sarbidea honako webgune hauen bidez egingo da:

<https://www.hamaika.eus/kontratazioak.html>

<https://www.berria.eus/kontratazioak.html>

9. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Eskaintza aurkeztu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, baldin eta kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute.

Enpresa lizitatuzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izan beharko dituzte.

Era berean, prozedura honetan deskribatutako lanen antzekoetan esperientzia nahikoa dutela egiaztatu beharko dute, bereziki barne-egokitzapeneko lanetan, egokitzapen akustikoan, arotzeria teknikoan edo ikus-entzunezko nahiz kultura-espazioekin lotutako obretan.

Erakunde kontratatuzaileek positiboki baloratu ahal izango dituzte enpresa lizitatuzailearen euskaraz jarduteko gaitasuna eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko lan- eta antolaketa-neurriak.

Ezingo dute kontratatu indarreko araudiaren arabera kontratatzeke debekuren batean dauden enpresek.

10. ESKAINTZAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Eskaintzak deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dira, ekainaren 18a baino lehen, honako helbide elektronikoa honetara bidalita:

teknika@hamaika.eus

Aurkeztutako dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egon beharko da.

Eskaintzak, gutxienez, honako dokumentazio hau jaso beharko du:

- Eskaintza ekonomikoa.
- Proposamenaren memoria tekniko deskribatzailea.
- Lanen gutxi gorabeherako plangintza.
- Kaudimen ekonomikoa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Kontratuari atxikitako giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapen laburra.
- Enpresa lizitatuzaileak bere proposamena baloratzeko garrantzitsutzat jotzen duen bestelako dokumentazioa.

Dokumentazio guztia PDF formatuan aurkeztuko da, ahal dela, eta mezu elektronikoa bakar batean bidalita.

Ez dira onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaintzak.

Erakunde kontratatzaileek argibideak edo dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dituzte eskaintzak baloratzeko prozesuan zehar.

Enpresa lizitatzailerak lizitazio-dokumentazioari buruzko kontsultak edo argibide-eskaerak bidali ahal izango dituzte eskaintzak aurkezteko adierazitako helbide elektronikora. Eskaintzak behar bezala prestatzeko garrantzitsuak diren erantzunak interesa duten enpresa guztiei helarazi ahal izango zaizkie.

11. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Kontratuaren esleipena kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintzari egingo zaio, honako balorazio-irizpide hauen arabera:

Irizpidea	Gehieneko puntuazioa
Irizpide teknikoak	40 puntos
a) Proposamenaren memoria teknikoa	25 puntos
b) Antzeko lanetan izandako esperientzia	15 puntos
Irizpide ekonomikoak	50 puntos
c) Eskaintza ekonomikoa	40 puntos
d) Gauzatze epea	10 puntos
Gizarte irizpideak	10 puntos
e) Euskera eta berdintasuna	10 puntos
TOTAL	100 puntos

A) Proposamenaren memoria teknikoa

Aurkeztutako proposamenaren kalitate eta koherentzia teknikoa baloratuko dira, gehienez 25 punturekin.

Memoria teknikoaren balorazioan honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

Baloratuko dena	Gehieneko puntuazioa

Proposamenaren kalitate eta koherentzia teknikoa	10 puntos
Eraikuntza-soluzioek kontratuaren xedearekiko duten egokitasuna	5 puntos
Lanen antolaketa eta plangintza	5 puntos
Pleguan ezarritako gutxieneko baldintzekiko proposatutako hobekuntzak	5 puntos

B) Antzeko lanetan izandako esperientzia

Enpresa lizitatzailleak azken bost urteetan kontratuaren xedearekin antzeko ezaugarriak dituzten lanetan egiaztatutako esperientzia baloratuko da, gehienez 15 punturekin. Bereziki, honako arlo hauetan egindako lanak hartuko dira kontuan:

- Barne-egokitzapeneko lanak.
- Isolamendu eta egokitzapen akustikoa.
- Arotzeria teknikoa.
- Espazioen birgaitzea.
- Kultura-ekipamenduetako obrak.
- Edo antzeko ezaugarriak dituzten bestelako jarduketak.

Enpresa lizitatzailleek egindako lan nagusien zerrenda labur bat aurkeztu beharko dute, honako datu hauek adierazita:

- Egindako jarduketaren deskribapena.
- Exekuzio-urtea.
- Erakunde kontratatzailea edo sustatzailea.

Irizpide honen balorazioa modu globalean egingo da, aurkeztutako esperientziak kontratuaren xedearekiko duen egokitasuna, kalitatea eta garrantzia kontuan hartuta, honako orientazio-eskala honen arabera:

Balorazioa	Puntuazioa
Esperientzia urria edo kontratuaren xedearekin lotura txikikoa	0 – 5 puntos
Kontratuaren xedearekin lotura egokia eta nahikoa duen esperientzia	6 – 10 puntos
Kontratua gauzatzeko bereziki egokia den esperientzia	11 – 15 puntos

zabala	
--------	--

C) Eskaintza ekonomikoa

Kontratua osorik gauzatzeko eskaintako prezioa baloratuko da, gehienez 40 punturekin.

Eskaintza ekonomikoa honako formula honen arabera baloratuko da:

$$P = I1 \times 40 / I2, \text{ donde:}$$

- **P:** baloratutako eskaintzak lortutako puntuazioa.
- **I1:** onartutako eskaintza ekonomiko merkeenaren zenbatekoa.
- **I2:** baloratzen ari den eskaintzaren zenbatekoa.

Ez dira onartuko lizitazioaren oinarritzko aurrekontua gainditzen duten eskaintzak.

Era berean, kontratuaren xede diren lanen exekuzio egokia arriskuan jar dezaketen eskaintza anormalki baxuak baztertu ahal izango dira.

D) Gauzatze-epea

Aurreikusitako lanen irismenarekin bat datorren exekuzio-plangintza egokia, errealista eta koherentea aurkezten duten proposamenak positiboki baloratuko dira, gehienez 10 punturekin.

Enpresa lizitatzailerak obrak gauzatzeko aurreikusitako epea berariaz adierazi beharko dute.

Irizpide honen balorazioa proposatutako egutegiaren koherentzia eta bideragarritasuna kontuan hartuta egingo da, honako orientazio-eskala honen arabera:

Proposatutako plangintzaren eta epearen balorazioa	Puntuazioa
Plangintza eskasa edo ez errealista	0 – 3 puntos
Aurreikusitako lanekin koherentea eta egokia den plangintza	4 – 7 puntos
Bereziki xehea, bideragarria eta ondo antolatutako plangintza	8 – 10 puntos

E) Euskera eta berdintasuna

Honako alderdi hauek positiboki baloratuko dira, gehienez 10 punturekin:

- Lanen koordinazioan eta exekuzioan euskaraz jarduteko gaitasuna.
- Aurkeztutako dokumentazioan euskararen erabilera.
- Lan- eta antolaketa-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak izatea.

Enpresa lizitatzailerak alderdi horiei buruzko dokumentazioa edo informazio laburra aurkeztu ahal izango dute.

Irizpide honen balorazioa modu globalean egingo da, enpresa lizitatzailerak egiaztatutako egokitasun eta konpromiso-maila kontuan hartuta, honako orientazio-eskala honen arabera:

Balorazioa	Puntuazioa
Oinarrizko maila edo behar bezala egiaztatu gabekoa	0 – 3 puntos
Kontratuaren xedearekin egokia eta koherentea den maila	4– 7 puntos
Bereziki egokia eta konpromiso handikoa den maila	8 – 10 puntos

12. BALORAZIO BATZORDEA

Aurkeztutako eskaintzen balorazioa erakunde kontratatzaileek izendatutako batzorde baten esku egongo da.

Batzordea honako erakunde hauetako ordezkariak osatuko dute:

- EUSKAL EDITOREA S.L.U.
- DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK S.A.

Balorazio-batzordeak argibideak, dokumentazio osagarria edo azalpen-bilerak eskatu ahal izango dizkie enpresa lizitatzailerari, aurkeztutako proposamenak behar bezala baloratzeko beharrezkotzat jotzen duenean.

13. PROPOSAMENEN IREKIERA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, erakunde kontratatzaileek enpresa lizitatzailerik aurkeztutako dokumentazioa ireki eta aztertuko dute.

Zuzendu daitezkeen akatsak edo dokumentazio osatugabea antzemanaz gero, arrazoizko epe bat eman ahal izango da horiek argitu edo zuzentzeko.

Ondoren, balorazio batzordeak onartutako proposamenak aztertuko ditu, plegu honetan ezarritako irizpideen arabera.

14. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Kontratuaren esleipena plegu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortzen duen eskaintzari egingo zaio.

Erakunde kontratatzaileek prozedura hutsik utzi ahal izango dute, aurkeztutako eskaintzetako bat bera ere proiektuaren beharretara egokitzen ez bada edo dokumentazioan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu.

Era berean, erakunde kontratatzaileek kontratua ez esleitzeko eskubidea izango dute, proiektuaren interesarekin lotutako arrazoi justifikatuengatik edo haren bideragarritasunari eragiten dioten ustekabeko egoerengatik.

Erakunde kontratatzaileek esleipen-erabakia parte hartu duten enpresa guztiei jakinaraziko diete posta elektronikoko bidez.

Kontratua formalizatu aurretik, enpresa esleipendunak erakunde kontratatzaileek eskatzen dioten egiaztapen-dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Kontratua idatziz formalizatuko da alderdien artean, eta jarduketari aplikatu beharreko baldintza ekonomikoak, teknikoak eta exekuzio-baldintzak jasoko ditu.

Kontratua formalizatzeak berekin dakar Administrazio Klausulen Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiria eta enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintza osorik onartzea.

15. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

Enpresa esleipendunak lanak Administrazio Klausulen Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Agirian eta aurkeztutako eskaintzan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko ditu.

Enpresa esleipenduna izango da obren exekuzio egokiaren arduraduna, bai eta lan-arloko, segurtasun eta osasuneko, lan-arriskuen prebentzioko eta hondakinen kudeaketako indarreko araudia betetzearen arduraduna ere.

Era berean, beharrezko neurriak hartu beharko ditu lanek Martin Ugalde Kultur Parkearen instalazioen ohiko jardueran eta ingurunean sor ditzaketen eraginak ahalik eta gehien murrizteko.

Enpresa esleipendunak eraikinari aplikatu beharreko ondare-babeseko baldintzak errespetatu beharko ditu, eta babes horretatik erator daitezkeen baldintza tekniko eta administratiboak betetzen lagundu beharko du.

Enpresa esleipendunak erakunde kontratatzaileekin koordinatu beharko du lanen exekuzio osoan zehar, eta jarduketarekin lotuta ematen diren jarraibide tekniko eta antolakuntzakoak bete beharko ditu.

Enpresa esleipendunaren kontura izango dira kontratu-dokumentazioan aurreikusitako baldintzetan lanak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide osagarriak.

16. KONTRATUAREN SUNTSIARAZTEA

Erakunde kontratatzaileek kontratua suntsiarazi ahal izango dute, kontratutik eratorritako funtsezko betebeharrak modu larrian ez betetzeagatik.

Kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira, besteak beste:

- Gauzatze-epeak modu larrian edo behin eta berriz ez betetzea.
- Lanak modu akastunean gauzatzea.
- Obra arrazoirik gabe bertan behera uztea.
- Kontratu-dokumentazioan ezarritako funtsezko baldintza teknikoak ez betetzea.
- Lan-arloko, segurtasun eta osasuneko edo ondare-babeseko araudia ez betetzea.

Kontratua suntsiarazteak ez du baztertuko, hala badagokio, ez-betetzeak eragindako kalte-galerak erreklamatzeko aukera.

17. PENALIZAZIOAK

Lanen exekuzio partzialak, akastunak edo justifikatu gabeko atzerapenak penalizazio ekonomikoak ekarri ahal izango ditu.

Gauzatze-epeetan atzerapenak gertatuz gero, erakunde kontratatzaileek kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren %0,5eko penalizazioa aplikatu ahal izango dute atzerapeneko aste bakoitzeko, kontratuaren guztizko zenbatekoaren %10eko gehieneko mugarekin.

Era berean, kontratuaren zenbatekoaren %10era arteko penalizazioak ezarri ahal izango dira exekuzio akastuna egiteagatik, baldintza teknikoak, segurtasun- eta osasun-baldintzak edo kontratu-dokumentazioan aurreikusitako funtsezko beste edozein betebeharrak ez betetzeagatik.

Penalizazioak idatziz jakinaraziko zaizkio enpresa esleipendunari, eta ordaintzeke dauden zenbatekoetatik deskontatu ahal izango dira, ez-betetze larria gertatuz gero kontratua suntsiarazteko aukerari kalterik egin gabe.

18. ERANTZUKIZUNA

Kontratista izango da lanen exekuzio egokiaren eta kontratua gauzatzean erabilitako soluzioen kalitate teknikoaren arduraduna.

Era berean, obren exekuzioaren ondorioz egindako akats, omisio, jarduketa desagoki edo ez-betetzeengatik erakunde kontratatzaileei edo hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalte-galeren erantzule izango da.

Enpresa esleipendunak beharrezko neurriak hartu beharko ditu lanen segurtasuna bermatzeko eta Martin Ugalde Kultur Parkean garatzen diren instalazio eta jardueren gaineko eraginak ahalik eta gehien murrizteko.

19. ASEGURUAK

Enpresa esleipendunak, kontratuaren exekuzio osoan zehar, erantzukizun zibileko aseguru nahikoa izan beharko du, lanen exekuzioaren ondorioz sor litezkeen kalte pertsonalak edo materialak estaltzeko.

Erakunde kontratatzaileek edozein unetan eskatu ahal izango dute aseguru horren indarraldia egiaztatzen duen dokumentazioa.

20. AZPIKONTRATAZIOA

Enpresa esleipendunak kontratuaren exekuzioarekin lotutako lanak azpikontratatu ahal izango ditu, baina erakunde kontratatzaileen aurrean jarduketaren exekuzio osoaren arduradun izaten jarraituko du.

Enpresa esleipendunak erakunde kontratatzaileei jakinarazi beharko die lanen

exekuzioan parte hartuko duten enpresa azpikontratatuaren berri, hala eskatzen zaionean.

Enpresa azpikontratuek ere lan-arloko, segurtasun eta osasuneko eta lan-arriskuen prebentzioko indarreko araudia bete beharko dute.

21. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Erakunde kontratatzaileek kontratuaren aldaketa puntualak adostu ahal izango dituzte, baldin eta arrazoi teknikoek, funtzionalek edo eraikuntzarekin lotutakoek hala justifikatzen badute eta aldaketa horiek jarduketa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak badira.

Aldaketa oro alderdien artean adostu eta idatziz formalizatu beharko da.

Aldaketek ezingo dute kontratuaren xedea funtsean aldatu, ezta kontratazio-prozeduraren oinarriko baldintzak desitxuratu ere.

22. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek izaera pribatua izango du, eta Administrazio Klausulen Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Agirian, gainerako kontratu-dokumentazioan eta dagokion legeria pribatuan ezarritakoaren arabera arautuko da.

Dokumentazio horretan berariaz aurreikusten ez den guztian, zuzenbide pribatuko arauak eta aplikatu beharreko gainerako araudia izango dira aplikagarri.

23. JURISDIKZIOA

Kontratu honen interpretazioari, betearazpenari edo ondorioei buruz alderdien artean sor daitezkeen auziak jurisdikzio zibileko epaitegi eta auzitegien eskumenekoak izango dira.

Alderdiak, dagokien beste edozein foruri uko eginez, Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dira.

I. Eranskina - Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia.

Nik, [...], [...] -n helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, nire izenean edo [...] -ren ordezkari gisa, [...] -n helbidea eta [...] NAN edo IFK zenbakia dituenaren izenean, jarduteko gaitasun juridiko eta gaitasun osoa dudala, eta SAREBIDE EFA 156/04 proiektuaren etorkizuneko ikus-entzunezko platoa egokitzeko obrak kontratatzeko lizitazioaren berri dudala,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT

Lehenengoa.- Eskaintza hau aurkezten den egunean ez nagoela indarreko araudian ezarritako kontratatzeko debekuren batean.

Bigarrena.- Berariaz onartzen dudala erakunde kontratatzailleek lizitazio-, esleipen- eta kontratuaren exekuzio-prozesutik eratorritako datuei gardentasun instituzionala eman ahal izatea.

Hirugarrena.- Prozedura honekin lotutako jakinarazpenetarako posta elektronikoen helbidea honako hau dela: [...]

[...] -n, [...](e)ko [...] aren [...] an.

[Sinadura]

II Eranskina - Negozio bolumenari buruzko deklarazioa

Nik, [...], [...] -n helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, nire izenean edo [...] -ren ordezkari gisa, [...] -n helbidea eta [...] NAN edo IFK zenbakia dituenaren izenean, jarduteko gaitasun juridiko eta gaitasun osoa dudala, eta SAREBIDE EFA 156/04 proiektuaren etorkizuneko ikus-entzunezko platoa egokitzeko obrak kontratatzeko lizitazioaren berri dudala,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT

Enpresaren azken hiru ekitaldi erabilgarrietako negozio-bolumena honako hau izan dela:

- [...] ekitaldia: ... €
- [...] ekitaldia: ... €
- [...] ekitaldia: ... €

[...] -n, [...] (e)ko [...] -aren [...] an.

[Sinadura]

III. Eranskina - Azken 5 urtetan egindako lanen deklarazioa

Nik, [...], [...] -n helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, nire izenean edo [...] -ren ordezkari gisa, [...] -n helbidea eta [...] NAN edo IFK zenbakia dituenaren izenean, jarduteko gaitasun juridiko eta gaitasun osoa dudala, eta SAREBIDE EFA 156/04 proiektuaren etorkizuneko ikus-entzunezko platoa egokitzeko obrak kontratatzeko lizitazioaren berri dudala,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT

Enpresak azken bost urtetan lizitazioaren xedearekin antzekoak diren honako lan hauek gauzatu dituela:

Egindako lana	Deskribapen laburra	Bezeroa	Kontratuaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Data	Exekuzio -aldia

[...] -n, [...](e)ko [...]aren [...]an.

[Sinadura]

IV. Eranskina - Modelo de oferta económica

Nik, [...], [...]-n helbidea eta [...] NAN zenbakia dituenak, nire izenean edo [...]-ren ordezkari gisa, [...]-n helbidea eta [...] NAN edo IFK zenbakia dituenaren izenean, jarduteko gaitasun juridiko eta gaitasun osoa dudala, eta SAREBIDE EFA 156/04 proiektuaren etorkizuneko ikus-entzunezko platoa egokitzeko obrak kontratatzeko lizitazioaren berri dudala,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT

Lehenengoa.- Kontratuaren xede diren lanak Administrazio Klausulen Agirian, Baldintza Teknikoen Agirian eta gainerako kontratu-dokumentazioan ezarritako baldintzen arabera gauzatzeko konpromisoa hartzen dudala.

Bigarrena.- Honako eskaintza ekonomiko hau aurkezten dudala:

- Eskaintako prezioa: [...] € (BEZik gabe)

Hirugarrena.- Lanak gauzatzeko aurreikusitako epea [...] izango dela.

Laugarrena.- Prozedura hau arautzen duen kontratu-dokumentazio osoa ezagutzen eta osorik onartzen dudala.

[...]-n, [...](e)ko [...]aren [...]an.

[Sinadura]